

**BERGARAKO UDALAREN ETA JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN
ARTEKO HITZARMENA,
JARDUNEN 2018KO ZENBAIT EGITASMO DIRUZ LAGUNTZEKO**

Bergaran bi mila eta hamazortziko martxoaren 28an.

BILDURIK

Maria Elena Lete Garcia andrea, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan da.

Eta bestetik, Pello Andrinua Iraolagoitia jauna, Jardun kultur elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate andrearen aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

ADIERAZI DUTE:

- 1.- Azken urteetan bi entitateek Jardunen urteko egitasmoak diruz laguntzeko hitzarmena sinatu izan dutela.
- 2.- Hitzarmen horien balorazio positiboa eginaz, egoki eta komenigarritzat jotzen dutela hurrengo urteetarako hitzarmen berri bat egin eta Jardunek hizkuntza normalkuntzaren alorrean egiten duen lana sendotzea.
- 3.- Alkateak 2018ko martxoaren 27an emandako Dekretu baten bitartez diru-laguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hori dela eta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

HITZARMENA

Euskararen normalkuntzaren bidean, Jardunek 2018an antolatuko dituen zenbait jardueretarako diru-laguntzak zehaztea da hitzarmen honen helburua. Hitzarmenaren iraupena 2018ko abenduaren 31ra artekoa izango da. Edozein kasutan ere, 2019ko urte hasieran, artean beste hitzarmenik onartu barik balego, 2018ko kopuruaren arabera ordaintzen jarraituko da 2019ko aurrekontuaren kontura eta hitzarmen berria sinatzean egingo dira egin beharreko diru-doikuntzak.

2.- Hitzarmen honen bidez Jardunek aurkeztutako euskararen normalkuntzarako egitarauak subentzionatuko ditu Bergarako Udalak, beti ere Udalak berak aparteko hitzarmen edo kontratuen bidez finantzatzen dituen ekintzak (Udaleku Irekiak, Gaztelekuak, Ludoteka, Etorikintzako errefortzuak, Berriketan eta Auzoko programa) honen 1. eranskinean jasota dator diru-laguntzagai diren egitarauen aurrekontuaren azalpena.

Diruz lagunduko diren jardueren artean dago Euskaraldia egitasmoa dinamizatzea. Egitasmo horretarako 10.000 euroko laguntza bideratuko du Udalak eta Jardunek konpromisoa hartzen du egitasmoa dinamizatzeko arduratuko den langile bat kontratatzeko hitzarmen honen bigarren eranskinean jasotako baldintzetan.



3.- Egitarau horiek lantzeko, Udalak, 2018an, 60.952 euroko dirulaguntza emango dio Jardun elkarteari Euskara batzordearen aurrekontutik.

4.- Jardun elkarteak egitasmo hauek ezagutarazteko erabiltzen duen edozein eratako publizitate eta propagandatan Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du argi.

5.- Diru-laguntza hau 12 zatitan ordainduko dio Udalak Jarduni.

6.- Hurrengo urteko lehen sei hilabeteen barruan egingo du Jardunek urteko gastuen zuriketa eta ekintzen memoriaren aurkezpena. Bestalde, hurrengo urteko amaiera baino lehen diru-kontuen auditoria ere aurkeztu beharko du.

Dena den, edozein momentutan ere Udalak eskubidea izango du Jardunen diru-kontuen berri jakiteko. Halaber, elkarteak sarrera eta gastuen faktura eta dokumentu original guztiak gutxienez lau urtean kontserbatuko ditu eta Bergarako Udalak aztertu ahal izango ditu.

7.- Jardun elkarteak genero-ikuspegia txertatuko du antolatzen dituen ekintzetan, eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea. Aurkeztu beharreko ekintzen memorian, garbi jasoko du, zein neurri hartu diren horretarako: agendan, emakumearen presentzia bermatzerakoan, edukien trataeran... Aldi berean, Jarduneko langileen eta bazkideen artean, eta langileek beste pertsona batzuekin duten harremanetan berdintasunezko tratua egon dadin bermatu beharko du elkarteak, eta horrela ez den kasuetan bitartekaritza lanak egin eta beharrezko neurriak hartuko ditu.

8.- Jardunek hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu hitzarmen hau bukatutzat emango da, ordura arte justifikatutako gastuen araberako laguntza eman ondoren.

9.- Diru-laguntza hauek beste entitate batzuek eman ditzaketenekin bateragarriak dira. Dena den, Udalak diruz lagundutako ekintzak burutzeko, beste diru-laguntzarik lortuz gero, berehala jakinarazi beharko dio Udalari eta edozein kasutan memoria aurkeztu baino lehen.

10.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aitatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteek.



Telefona: 943 760819 - 943 763661
Faxa: 943 760819
E-mail: jardun@topagunea.com
Errotalde Jauregia (Kultura Etxean)
20570 BERGARA

Pello Andrinua Iraolagoitia
Jardun euskara elkartearen presidentea



Maria Elena Lete Garcia
Begarako alkatea



Begarako
Udala

Eranskina

AURREKONTUA 2018

GASTUAK		SARRERAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
PERTSONALA	98.225,00	BAZKIDETZA	16.900,00
Soldatak	91.575,00	BESTELAKOAK	12.000,00
Gizarte segurantza	6.650,00		
KULTURA	10.415,00	KULTURA	3.425,00
Ikastaroak	600,00	Ikastaroak	200,00
Hitzaldiak	1.000,00	Hitzaldiak	0,00
Kultur emanaldiak	2.500,00	Kultur emanaldiak	0,00
Amodiozko gutunak	2.500,00	Amodiozko gutunak	0,00
Bertso eskola	1.200,00	Bertso eskola	0,00
Antzerki eskola	1.000,00	Antzerki eskola	3.225,00
Postal lehiaketa	115,00	Postal lehiaketa	0,00
Euskal musika zikloa	1.500,00	Euskal musika zikloa	500,00
HAUR ETA GAZTEAK	6.400,00	HAUR ETA GAZTEAK	29.501,00
Txapligu	4.500,00	Txapligu	16.150,00
Txorimalo lehiaketa	100,00	Txorimalo lehiaketa	0,00
Errefortzuak	150,00	Errefortzuak	176,00
Domekak familian gozaten	100,00	Domekak familian gozaten	0,00
Kanpo zerbitzuak	1.500,00	Kanpo zerbitzuak	13.175,00
Ikasle batzordeak	50,00	Ikasle batzordeak	0,00
SENTSIBILIZAZIOA	8.200,00	SENTSIBILIZAZIOA	4.500,00
Euskaraldia	1.000,00	Euskaraldia	0,00
Kanpainak	600,00	Kanpainak	0,00
Euskararen eguna	300,00	Euskararen eguna	0,00
Bazkidekin harremana	3.650,00	Bazkidekin harremana	0,00
Jaixetako ekintzak	1.900,00	Jaixetako ekintzak	4.500,00
Idazlaguna	600,00	Idazlaguna	0,00
Euskal triviala	1.150,00	Euskal triviala	0,00
KANPO HARREMANAK	1.860,00	KANPO HARREMANAK	1.200,00
Goiena	60,00	Goiena	1.200,00
Topagunea	1.800,00	Topagunea	0,00
EGITURA	8.300,00	DIRULAGUNTZAK	82.750,00
Egitura gastuak	8.300,00	Udala	60.950,00
BESTELAKOAK	21.000,00	F.A.	9.000,00
Bestelako gastuak	21.000,00	E.J	12.800,00
GASTUAK GUZTIRA	154.400,00	SARRERAK GUZTIRA	150.276,00
	EMAITZA		-4.124,00



[Handwritten signature]

Jardun
 Telefonoa: 943 760819 - 943 763661
 Faxa: 943 760819
 E-mail: jardun@topagunea.com
 Errotalde Jauregia (Kultura Etxean)
 20570 BERGARA



Begarako
Udala

2. ERANSKINA.

1.- JARDUNEN EGITEKOAK EUSKARALDIA PROGRAMAREN DINAMIZAZIOAN:

Jardun euskara elkarteak dinamizatzaile bat kontratatuko du honako dedikazioarekin: egunean 2 ordu apiriletik abuztura eta egunean 4 ordu irailetik abendu amaierara. Udalak ez du kontratazio hori dela eta inolako erantzukizunik izango

Dinamizatzailea, tokiko egitasmoaren eragile nagusia izango da. Alde batetik, Euskaraldiaren herriko batzordearekin maiztasun handiko harremana eduki eta kohesionatu behar du, eta bestetik, ekimenera jende berria ekarri behar du. Hortaz, Bergarako Euskaraldia ekimenaren baitako eragiletza lanak dinamizatzaile honen ardurapekoak izango dira eta honako **zereginak** izango ditu, besteak beste:

- Herriko eragileei eta herritarrei ekimena aurkeztu (elkarteak, enpresak, norbanakoak...).
- Euskaraldiaren bueltan euskaltzaleak saretu eta batzordea osatu edo trinkotu.
- Batzordea(k) koordinatu.
- Batzordearekin batera, herriko plangintza zehaztu eta kronograma egin (ekintzak, komunikazioa...).
- Batzordean zehazten diren kudeaketa lanak bideratu (herritarren formazioa, aktibista sarea, ekitaldiak, entitateen urratsak, txapak banatu, dokumentazioa eta bestelakoak).
- Barne eta kanpo komunikazio lanak gauzatu (sustatzaileekin harremana, batzordeko kideen arteko harremana, herriko izen ematea eta datu basea, prentsa oharrak, sare sozialak eta bestelakoak).
- Ekimenaren aurrekontua kudeatu.
- Ekimenaren ebaluazioa egin eta ikerketa nazionalean lagundu.
- Koordinazio orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu, eta ekimen orokorreko sustatzaileekin koordinatuta egon, baita eskualdeko gainontzeko dinamizatzaileekin ere.

